



ARARTEKOA EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAREN AURREAN AGERTZEN DA: 2010. URTEKO TXOSTENA

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 23a

Legebiltzarreko lehendakari andrea, mahaikideok, lehendakari jauna, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernukideok. Egun on.

Ohorea da niretzat Legebiltzarraren osoko bilkura honetan agertzea Ararteko erakundearen 2010. urteko ohiko txostenaren berri emateko. Izapide honetan, pozik betetzen dut, Legebiltzarraren goi ordezkari naizenez, Ararteko erakundeak 2010ean burutu dituen jarduerak ganbera honi jakinarazteko betebeharra.

Orain 22 egun agertu nintzen Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen aurrean, txosten honexen berri emateko. Mintzaldi hartan, aurreko urteetan erabilitako eskemari jarraiki, 2010ean herritarrek egin dizkiguten kexen azterketa kuantitatiboa egin nuen, laburki azaldu nituen erakunde honek burututako jarduerak, txosten berezi edo monografikoak ezagutarazi nituen, baita gomendio orokorrak ere, eta agerian jarri nuen zer administraziok lagundu duten Arartekoaren lana betetzen, zer administraziori gogorarazi edo berriz eskatu behar izan zaizkien bere erantzunak, eta zer administraziok ez duten bete Arartekoari laguntzeko betebeharra.

Batzordeari azaldu nizkion gaietatik, honako hauek aipatu nahi ditut berriro:

- Ararteko erakundearen jarduera %3,75 inguru hazi da iazkoaren aldera, herritarrei eman zaien zerbitzuari eta arretari dagokionez (guztira 6.446 ekintza egin dira, kexak, telefono kontsultak eta hiru bulegoetan emandako orientazio eta laguntza jarduerak gehituz gero). Horrek esan nahi du herritarrek gure lanean konfiantza handiagoa dutela.
- Iaz aldaketa garrantzitsua sendotu genuen Arartekoaren egituran eta funtzionamendua. Horrela, 29 lan-arlo sortu genituen: 16 gaiari zegozkionak edo arreta publikoa behar duten 12 taldeei dagozkienak. Horiez gain, aipatzekoa da, duen garrantziagatik, Haur eta Nerabeentzako Bulegoa.
- 2010ean burututako jarduera askotarikoa izan da. Lehen aipatutako 6.446 jardueraz gainera, honako hauek ere azpimarra ditzakegu: gizarte elkarleen elkarlanean egindako jarduerak – 149 elkarterekin izan dugu harremana –, ikuskatze-bisitak – 13 –, 7 gomendio orokor onartu dira, Ararteko erakundea berriztatzeke proiektuak eratu dira eta txosten bereziak eta beste argitalpen batzuk prestatu dira.



Giza Eskubideen Batzordeari azaldu genion moduan, Arartekoaren jarduerak lau eremutan biltzen dira nagusiki:

- Herritarrei kasu egitea eta aholkuak ematea, herritarrei informatzeko bulegoen bitartez, eta kontsultak bideratzea.
- Herritarrek egindako kexa-espedienteak bideratu eta ebatzea.
- Politika publikoak ebaluatzea, honako tresna hauen bitartez: ofiziozko jarduerak, jarduera-planak, gomendio orokorrak, txosten bereziak, ikuskatzeko bisitak, e.a.
- Giza eskubideak sustatzea.

Arreta publikoa behar duten taldeen egoera oro har aztertzen hasi baino lehen, hauxe adierazi nahi dut: aurreko urteetan bezalaxe, iaz jaso eta bideratu genituen kexarik gehienak – %16, hain zuzen – gizarte babes sistemekin zerikusia duten eskubideei buruzkoak dira, 2009ko **%12,38ren aldean. Horrek adierazten du %3,62 gehitu direla, orokorrean.**

Gizarte eskubideak zentzu zabalean hartzen badugu (etxebizitza, hezkuntza, osasuna, lana eta gizarte segurantzak), gure jardueraren %39,40 dagokio gizarte arloari.

Egungo krisialdi ekonomikoak eta azken hilabeteotan hartzen ari diren doikuntza-neurriek gai hori nabarmentzera behartzen gaituzte, izan ere, neurri horiek egoerarik txarrean dauden pertsonen eskubideen kaltetan hartzeko arrisku argia dago, eta pertsona horiek izan ohi dituzten zailtasunik handienak beren eskubideak defendatzeko eta jendaurrean entzunak izateko; horrek denak gehitu egiten du haien ahultasun arriskua. Erakunde hau erne egongo da datozen hilabeteetan gai honi dagokionez, eta ezagutzera emango du Euskadin eskubide sozialek izaten ari diren bilakaera.

Gainontzeko gaiak direla-eta, Batzordean azaldutakoari eta urteko txostenean bertan adierazitakoari lotzen natzaio. Txosten hori dagoeneko eskuratu duzue legebiltzarkideok, eta gure web gunean ere kontsulta daiteke (www.ararteko.net).

Osoko bilkuraren aurreko agerraldi honetan, ohikoa denez, iaz egin dugun lanaren arabera, lehentasunezko arreta ematen diegun talde eta errealitate sozialekin zerikusia duten politika publikoak direla-eta, garrantzirik handiena merezi duten gaiak azalduko ditut. Izan ere, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko 3/1985 Legeak, otsailaren 27koak, honako hau ezartzen du 32. artikuluan: Legebiltzarrari egiten zaion urteko txostenean, gure autonomia erkidegoan eskubideen babesa zer



egoeratan dagoen baloratu behar dela. Balorazio hori X. kapituluan egin da, eta han adierazitakoari lotzen natzaio denbora kontuagatik agerraldi honetan jorratu ezingo ditudan gaietan.

- I. Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideen babesa zein egoeratan dagoen baloratzeko orduan, Arartekoari funtsezkoa iruditzen zaio Konstituzioaren 10. artikulua. Artikulu hori Konstituzioaren I. idazpuruko atarikoa da eta bertan bildu eta arautzen da pertsonen oinarrizko eskubide eta betebeharren sistema. Pertsonaren duintasuna, hau da, norberaren autodeterminazioa, norberaren askatasuna eta nork bere bizitza bere ezaugarrien eta borondatearen arabera egin eta gara dezan errespetatzea. Funtsezko eskubide hori da oinarrizko eskubide guztien euskarri nagusia. Gainera, eskubideen sistema osoan eragina izan behar dute lehen artikuluan bildutako araubide juridiko-konstituzionaleko balio gorenek, hala nola askatasunak, justiziak, berdintasunak eta aniztasun politikoak.

Eskubideen aldarrikapen orok edukirik gabe geratzeko arriskua izaten du, baldin eta, aitortutako eskubideak babeste aldera, sistema sendo eta eraginkorrik ez badago eta, aldi berean, herritarrek eta gizartea osatzen duten eragile politiko eta sozial guztiek argiro onartzen duten balio etikoen sistema bat ere ez badago. Ararteko erakundeari dagokio, halaber, giza eskubideak errespetatzearen aldeko kultura zabaltzeko lan egitea.

- II. Adierazi nahi dut Arartekoaren Bulegoak, eskubideak gauzatzearen egoeraz egiten duen diagnostikoan, honako hauek hartzen dituela oinarritzat: kexa-espeditateetan aztertutako gai zehatzen analisia eta ebazpena, gizarte-errealitateari eta politika publikoei buruz txosten berezietatik, gizarte-erakundeekin egiten ditugun bileretatik eta prospekziarako eta azterketarako erabiltzen ditugun beste tresna batzuetatik ateratzen dugun informazioa. Ezinezkoa da 29 lan-arloetako ondorioak arrazoizko denbora-tarte batean laburtzea. Txostenean barrena azaltzen da zer arazo, gabezia, jarduera eta politika publiko zuzendu edo hobetu beharko liratekeen hezkuntza, osasun, etxebizitza, hirigintza eta ingurumen arloetan, administrazioak herritarrekiko harremanetan duen funtzionamenduan, e.a. Ahalegin handia egin dugu arlo bakoitzeko gai esanguratsuenak ondorioen atal batean biltzeko. Haur eta Nerabeentzako Bulegoari dagokionez, adierazi behar dut urteko txostenaren separata batean argitaratu dela haren jardueren azalpena, baita adin txikikoei buruzko politika publikoen balorazioa ere.
- III. Arartekoak zenbait talde identifikatuta dauzka, bere ustez, politika publikoen premia handia dutelako, beraien eskubideak baliatzean erabateko berdintasuna berma dadin, beraien duintasuna behar bezala zaindu dadin eta egiturazko edo gizarte-arauek sortutako ahultasun-elementuei aurre egin dakien. Talde horien



gainean garrantzitsuak iruditzen zaizkigun alderdi batzuk nabarmenduko ditugu jarraian. Hain zuzen ere, pertsona hauetaz mintzo gara: gizartean baztertuta edo pobrezian bizi diren pertsonak; emakumeak; adin txikikoak, haur eta nerabeak; atzerritarrak; edadetuak; ezinduak; terrorismoaren biktimak; osasun gaitz kronikoa duten pertsonak, gaitz fisikoa nahiz buruzkoa izan; familiak; joera edo identitate homosexual edo transexuala dutenak; askatasunik gabeko pertsonak; presoak eta espetxeratuak; ijito herria eta beste kultura gutxiengo batzuk.

1. Haurrak eta Nerabeak

Zenbait unetan adierazi dugunez, 2010. urtean sortu genuen Haur eta Nerabeentzako Bulegoa. Bulego hori Arartekoaren lehentasunezko arlo estrategikoetako bat da eta lehenago adin txikikoaren arloa zena biltzeaz gain, bere gain hartu ditu jada desagertutako adin txikikoaren defentsa-erakundearen eginkizunak. Erakunde hori euskal gobernuaren barruan kokatuta zegoen.

Babesik gabe edo hala egoteko arriskuan dauden haurren arloan, familietan esku hartzeko eta familiei laguntzeko apustu irmoagoa egin behar dela pentsarazten diguten elementu nahikoak daude: gehienbat udalaren gizarte-zerbitzuen bidez, horiek protagonista baitira egoera artean babesgabezia maila handira iritsi ez denean eta adin txikikoaren inguru naturaletik abiatuta esku har daitekeenean; familia-harreraren kasuan, kalitateko eta denbora-etenik ez duen laguntza emanez, bai adin txikikoari, baita, nagusiki, hura hartzen duen familiari; egoitzetan hartuta dauden haur eta nerabeei dagokienez, haien familiekin gehiago esku hartuz.

Egoera berezia bizi dute **bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrek**, familiarik ez dutenek. Izan ere, babesik gabeko adin txikikoak izan arren, sarrien antzeman diren arazoek honako gaiokin dute zerikusia: harrera-protokolo desberdinak eta irizpide ezberdinak daude lurralde historiko bakoitzean (batik bat adina zehazteari dagokionez) eta horrek ondorioak izaten ditu adingabea babes-sisteman sartzarekin ala ez sartzarekin; eta ez da betetzen egoitza-baimena emateko betebeharra. Haurren Eskubideen Batzordeak Espainiari egindako azken oharretan ere aipatzen dira gai horiek.

Adin txikiko lege-hausleei buruz, honako hauek dira kezka nagusiak: adin txikiko horietatik asko babes-sistematik etorriak direla, eta etengabe gehitzen ari direla familia barruko eta bikotearen kontrako indarkeriazko delituak.

Hezkuntza arloaren eta, zehazkiago, **hezkuntza-premia bereziak dituzten** haur eta nerabeei arreta ematearen gainean, guztiek batera duten elementua hau da: familiekin elkarlana hobetu behar dela. Gainera, gizarte-egoerarik txarrean bizi diren pertsonen eta taldeen kasuan, beharrezkoa dirudi lanean jarraitzeak, eskolan sakabanatzea edo ghettoak sortzea eragozteko. Horretarako, are gehiago indartu



beharko lirateke politika konpentsatzaileak eta zailtasun handienak dituzten ikastetxeen alde diskriminazio positiboa egiteko neurriak.

Familiekin komunikatzea eta elkarlanean aritzea ere funtsezkoa izaten da **eskolako jazarpen** egoerak gertatzean, baina bizikidetasun-planen eta ikastetxeek horretarako abiarazi dituzten beste tresna horien garrantzia arras gutxitu gabe. Esperientzia arrakastatsuak partekatzeko eta hedatzeko unea iritsitakoan, planak agiri *bizigabe* bihurtzean datza arriskua, tresna *bizi* gisa duten ahalmena erabili beharrean.

Osasun-sistemaren zuzeneko informazioa eskuratzerik izan ez badugu ere, hurrekin eta batez ere nerabeekin harremanetan dauden beste sistema batzuetako gizarte- eta erakunde-eragileek behin eta berriz adierazi digute **haurren eta gazteen buruko osasunari** kasu egitea dela adingabeen osasunerako eskubidearekin lotuta dauden beharretatik premiazkoenetako bat. Hasteko, beharren eta horiei erantzuteko baliabideen diagnostiko hobea egin behar dela diote; eta gero, baliabideen eta sistemen arteko koordinazioa hobetzen aurrera egin behar dela ere adierazi digute.

Haurren pobrezia egoerak gehitu egin direla eman dute aditzera zenbait azterketak eta gizarte-erakundek, esate baterako, Cáritasek, pobreziaz egin duen azken txostenean, edo Haurren Elkartearen Plataformak, Espainiako Haurren Eskubideen Hitzarmena aplikatzeko III. eta IV. txostenen txosten osagarrian.

Azkenik, **haurren partaidetza** prozesuak hobetu behar direla nabarmendu dugu, hurrekin batera eraiki ahal izateko eta beraiei dagozkien gaietan beren iritzia aintzat hartzeko. Ildo horretan, bat egiten dugu Haurren Elkartearen Plataformak egindako gomendio honekin: *haurrei dagozkien arloetan, haiek parte hartzeko egitura egokituak eta egonkorak sustatu behar dira*, baita metodologia dibertigarri eta erakargarriez diseinatutako partaidetza prozesuak ere. Prozesu horien bitartez, aldeztatik argituko da: nori helduko zaizkion beren ideiak, haiekin zer egingo den eta politikak garatzeko arduradunekin bildu eta elkarri eragiteko aukerarik badagoen.

Hain zuzen, horrexegatik erabaki zuen Arartekoak iaz Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sortzea, gure neskatok, mutikok eta nerabeei hitza emateko eta dagozkien gaietan duten beraien ikuspegia azaldu ahal izan dezaten. Haurrentzako Bulegoaren separatako kapitulu hori irakurtzea gomendatzen dizuet, bada bertan balio handiko informazioa aurkituko duzue gure neska-mutiek pentsatzen dutenaz, baita azaldutako gai batzuen gainean egin dituzten ekarpen esanguratsuenak ere.



2. Familiak

Gure ustez, etorkizun hurbilean, familiei laguntzeko jarduera publikoak nabarmendu behar dira:

- **Langile autonomoek lana eta familia bateragarri egitea:** horrelako langileentzako laguntza ekonomikoak ere aipatu behar ditugu, izan ere, gaur egun ez daukate estaldurarik lana eta familia bateragarri egiteari buruzko indarreko araudian.
- **Familia ugariak eta seme-alabengatik ematen diren laguntzak:** beharrezkoa iruditzen zaigu familia horientzako laguntza ekonomikoa gehiago bultzatzea, zuzeneko laguntzak erabiliz, baina baita ere zerga arloko tresnetan neurri eraginkorrakoak baliatuz. Hori lortzearren, gai horretan eskumena duten erakundeak koordina ditzala eskatzen diogu Gobernuari.
- **Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuko laguntzak eskatzeko epeak direla eta, arazoak sortu dira:** gure inguruko beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan, komenigarria da, guk uste, mekanismo automatikoak ezartzea dekretu horretan adierazitako seme-alabengatik laguntzak aktibatuzeko, epe preklusiboetan eskabidea egin behar izan gabe.
- **Guraso bakarreko familiak eta babes berezia:** komenigarritzat jotzen dugu bi seme edo alaba dituzten guraso bakarreko familiak familia ugariekin parekatzeko neurriak abiaraztea, Estatuko legerian agintzen den bezala.
- **Bateragarritasun arazoak kooperatibetan:** arlo horretan dagoen legezko hutsunearen arazoa konpondu beharra dago, kooperatiba batzuetako langile bazkideek lana eta familia bateragarri egitearen arloan beren laneko eskubideak aitor diezazkieten aurkitzen dituzten zailtasunak eragozteko.
- **Adin txikikoak eta genero indarkeria:** genero indarkeria dagoen familietan, adin txikikoen egoera berriaz aztertu beharra dago, gure iritziz.
- Gainera, familien arloari dagozkion 3 gomendio orokor egin dira, eta udako ikastaro bat egin da lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiteaz.

3. Emakumeen berdintasuna eta osotasun fisikoa

Arartekoak hiru ardatz abiapuntu hartuta lan egiten du arlo honetan: indarkeria sexista desagerraraztea, sexuagatiko edonolako bereizkeria deuseztatzea, eta gizarte-eremu guztietan benetako berdintasun eraginkorra lortzea.

Gehitu egin dira erakundeek genero indarkeriari ematen dioten erantzunari buruzko kexak, eta, horrekin batera, aurten areagotu egin dira indarkeria mota horren biktima diren emakumeen heriotzak; horrek guztiak gogoeta eragin digu emakume horiei arreta emateko eta laguntzeko dugun sistemaren akatsen gainean. Hona



hemen arlo horretan egin dugun kontrol lanetik atera ditugun ondorio azpimarragarrienak:

Genero indarkeriazko kasuetan, babesteko araudi batzuk ez dira eraginkorrak, ez nahikoak ere (adibidez, doako justiziar buruzko araudia, etxebizitza eskuratzeari buruzko araudia edo familientzako laguntzei buruzkoa); oinarrizko gizarte-zerbitzu batzuek eta udaltzaingo batzuek ez dute prestakuntza espezializaturik genero indarkeriazko kasuetarako; erakundeen erantzuna sakabanatuta dago eta ez dago administrazio koordinaziorik kasu bakoitza oso-osorik aztertzeko; prozesu judizialetan disfunzioak sor daitezke indarkeria mota horren biktime diren emakumeentzat eta beren seme-alabentzat; urruntzeko aginduak ez dira eraginkorrak; laguntza horrekin zerikusia duten arau batzuetako egintza-hipotesiak zorrotzak dira, eta horrek eragotzi egiten du arreta pertsonalizatua eta kasu batzuen berezitasunetara egokitutakoa ematea eta, horrexegatik, ez da behar bezalako babesa ematen; arreta berezia eskaini behar zaie emakume etorkinei, arlo horretan ahulagoak baitira.

Lan-arlo horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin harremanetan egon gara, baita genero indarkeriaren biktime diren emakumeei laguntzen diharduten elkarteekin ere. Haiei gure hausnarketak helarazteko aukera izan dugu eta elkarri jakinarazi dizkiogu gai horretaz ditugun ikuspuntuak eta iritziak.

Azkenik, nabarmendu nahi dugu erakunde honek ofiziozko jarduera bat bultzatu zuela Barakaldon eraila izan zen Cristina Estébanezi erakundeek eman zioten erantzuna ikertzeko. Emakume haren erasotzailearen kontrako urruntze-agindua zegoen arren, bere bikotekide ohiak erail egin zuen, 2010eko abenduan. Beste lau emakume hil ditu joan den urtean indarkeria matxistak: Amelia Amaya, Elena Cal, Amelia Sánchez eta Isabel Vélez. Guztiontzat lehentasunezko helburua izan beharko litzateke gaitz ikaragarri hori ezabaraztea.

Horrez gain, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloari dagozkion 3 gomendio orokor egin dira: banandutako bikoteen kasuan erantzukizun partekatua izateari buruz, Euskadiko jaietan emakumeak eta gizonak berdintasunez tratatzeari buruz eta lanaldia murrizteko eta egokitu edo aldatzeko eskabideak norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko neurritzat hartzeari buruz.



4. Ezintasunen bat duten pertsonen oraindik ere zailtasun handiak aurkitzen dituzte beren eguneroko bizitzan berdintasunean bizi ahal izateko, hirian irisgarritasun arazoak daudelako eta oztopoak aurkitzen dituztelako, bai hezkuntza arloan, bai gizarte laguntzak eta prestazioak jasotzeko orduan.

Inguru fisiko edo hiri-ingururako eta eraikinetarako sarbideak oraindik ere ezintasunen bat duten pertsonen salaketa ugari eragiten ditu erakunde honetan. Urtea joan eta urtea etorri, herri-administrazioei eta, bereziki, udalei eskatzen diegu sakon azter dezatela hiri-inguruetako irisgarritasun arazoak konpontzeko konponbide teknikoak jartzeko dauden hautabideak. Etengabe adierazi diegu herritar guztiek berdintasunean erabil ditzaketen instalazioak lehenetsi behar direla, ezintasunen bat duten pertsonen aukera berberak izateko eta diskriminatuak ez izateko printzipioak gauzatzeko asmoz.

Aurrerapen garrantzitsuak egin badira ere, garraio publikorako irisgarritasun unibertsala da, oraindik ere, ezinduen errebindikazio nagusietako bat, eta Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publikoaren zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresa eragileek aurre egin beharreko erronka handia. Hori guztia egiaztatu ahal izan dugu EAEko garraio publikoaren sistemak duen irisgarritasunaz erakunde honek egin duen txosteneko diagnostikoan.

Aukera berdintasunean heztea eta trebatzea da sistemaren funtsezko beste zutabe bat ezinduak gizartean erabat eta modu eraginkorrean txertatu ahal izan daitezen. Hala ere, hezkuntza arloko errealitatea helburu hori lortzetik urrun dago oraindik. Horixe egiaztatu dugu, esaterako, gorren taldeak egindako kexak bideratzean, izan ere, ez dago zeinuen hizkuntzaren interpretarik lanbide heziketako prestakuntza zikloetako irakaskuntzetan.

Zerga arloko araudiak onura fiskalak ezartzen ditu (salbuespenak, hobariak, beherapenak...), bi helbururekin: alde batetik, familia barruan ezinduren bat dutenek egindako gastu handiagoa berdintzea; eta bestetik, familia horiek duten ahalmen ekonomiko txikiagoa aintzat hartzea. Alabaina, gaur egun dauden onuren aplikazioa askotan interpretazio formalisten mende geratzen da.

Gure erkidegoko gizarte-politikan aurrerapen handia nabari da azken urteotan, nahiz eta ezintasunen bat duten pertsonen oraindik ere oztopo garrantzitsuak aurkitzen dituzten eskatutako laguntzak eta prestazioak jasotzeko orduan.

Azkenik, adierazi nahi dugu komunikazioan irisgarritasuna bermatuko duten neurri teknikoak hartzea dela oraindik ere gainditzeko daukagun irakasgaia Euskal Autonomia Erkidegoan. Horixe egiaztatu dugu lehen aipaturiko txosten berezian, eta, gainera, informazioa eta komunikazioa errazteko baliabide teknikoak falta



direla eraikin publikoetako harrera-guneetan, hezkuntza-, osasun- eta gizarte-baliabideetarako sarbidean.

5. Gaixo kronikoak

Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategia berria tresna baliagarria da, gure ustez, Osasun eta Kontsumo Sailak gaixo kronikoei arreta emateko asmoz epe ertainerako proposatu dituen helburuak finka daitezten eta Ararteko erakundeak hartu diren konpromisoak betetzen diren ala ez azter dezan.

Estrategia horren 9. proiektuan adierazi denez, sistema hobetu nahi bada, nahitaez kontuan hartu behar da lehen mailako arreta, ospitaleak eta gizarte zerbitzuak elkarren mendekoak direla. Ildo horrexetan jardun behar dela adierazten da, halaber, EAEko arreta soziosanitarioaren ildoak finkatzeko agiri-markoan.

Egiaz, aztergai duguna bezalako talde heterogeneo batek dituen arazoak, nolana ere, arazo soziosanitarioak dira. Horixe egiaztatu dugu buruko osasun arazoak dituzten pertsona batzuek edo haien senideek erakunde honi azaldu dizkioten gaietan, baita beste gaixo batzuek azaldutakoetan ere: ezintasun organikoren bat dutenek (giltzurrunetako gutxiegitasun kronikoa duten gaixoez, giltzurruna transplantatu zaienek, gaitz kardiobaskularrak, biriketakoak, hezur-muinekoak edo gibelakoak dituztenek), lehen edo bigarren mailako linfedemak, agenesiak edo gaitz neurologikoak dituztenek.

Era berean, erakunde honek arretaz aztertu beharko du ea bete den EAEk buruko osasunaren arloan 2010erako eraturako estrategia (2009ko gure txostenean aipatu genuen horren edukia).

Gaixo kronikoen eskubideak sustatzearen arloan, laguntzeko elkarten lana oso eraginkorra dela ikusi dugu eta, gainera, horri esker, solaskide baliagarria dugu gaixo horiek zer oztopo nagusi aurkitzen dituzten jakiteko. Horrek erraztu egiten du administrazioen aurrean egiten dugun lana, haiei oztopo horien berri emateko eta hobetzeko proposamenak egiteko orduan.

6. Espetxeratuak eta atxilotuak

Ontzat jotzen dugu espetxe arloan hasitako transferentzia prozesua. Gure aburuz, une honetan prozesu horrek funtsezko bi erronka sortu dizkio Gobernuari:

- Sailkapenen, helmugen eta kartzelen barruko araubidearen arloetan **eskumenak bereganatzeko prozesua lehenbailehen burutzea.**
- Bitartean, **administrazio zentralaren eta autonomikoaren artean lankidetzan aritzeko irizpideak** adostea. Horrela, ahalik eta gehien aprobetxatu ahal



izango dituzte zigor betearazpenari buruzko indarreko araudiak eskaintzen dizkien aukerak, txostenak egin ahal izango dira eta presoei laguntza psikosoziala eman ahal izango zaie.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak **gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideen** alde apustu egitea erabaki ona dela uste dugu. Azken finean, zera lortu nahi da: zigor sistemaren jarduerak, hobeto gizarteratzen laguntzen ez badu, behintzat ekidin dezala espetxeratua espetxetik ateratzean legea betez bizitzeko dituen aukerak modu kaltegarrian baldintzatzea. Horretarako, **programaren diseinuak eta jarraipenak banakakoa izan behar du.**

Arlo honetan ere funtsezkoa da erkidegoko eta Estatuko agintaritzak elkarlanean aritzea, euskal administrazioek elkarrekin koordinatzea eta administrazioen eta arlo honetan lanean diharduen ekimen sozialeko erakunde-sare zabalaren arteko komunikazioa hobetzea. Izan ere, erakunde sare hori da, gure iritziz, elkartasunaren eremuan gure herrialdean dagoen ondasun handienetako bat. Ezinbestekoa iruditzen zaigu **erakunde horiek espetxeen arloko gizarteratze-esparruan duten eskarmentua eta prestakuntza kontuan hartzea eta aprobetxatzea.**

Espetxe sistemaren gabezia handienetako bat arreta psikiatriko egokirik ez izatea da oraindik ere, eta hori larriagotu egiten da askatasunik gabeko pertsona askok izaten dituztelako patologia dualak.

Horregatik, Arartekoak gai horri buruzko txosten berezi bat aurkezteko asmoa du 2012. urtearen hasieran, arazo horri erantzun osoa emateko beharrezkoak diren ekimen ofizial eta sozialak sustatzeko asmoz.

Espetxeratuen arazoarekin lotuta, 2010. urtean **azterlan bat** egin da **atxiloaldi inkomunikatuaren esparruko berme-sistemaz eta hobekuntza proposamenez**: Arartekoak hainbat kexa jaso ditu eta oraindik ere jasotzen ditu inkomunikazio erregimena aplikatu zaien atxilotuei ustez torturak edo tratu txarrak eman zaizkielako. Inkomunikazioa deusezta zedila eskatu genuen 2004ko abenduan torturaz eta tratu txarrez egin genuen Adierazpenean.

Sei urte igaro eta gero, sakon aztertu nahi izan dugu horren bilakaera, oinarrizko hiru erreferentzia abiapuntu hartuta: prebenitzeko eta giza eskubideak babesteko nazioarteko erakundeek denbora horretan Espainiari egindako oharrak; azken urteotan atxiloketa inkomunikatuaren lagin esanguratsuak aztertu dituzten azterketa enpirikoetatik lortzen diren ondorioak; eta, azkenik, Konstituzio Epaitegiak eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Epaitegiak azken urteotan gai horretaz eman dituzten epaiak.



Horiek guztiak batera aztertuta, erakunde honek egiaztatu du hobetzeko tartea dagoela berme-sistemaren oinarritzko alderdi batzuetan, hala nola epaileek atxilotuta eta inkomunikatuta dagoen pertsonaren eskubideak kontrolatzea, abokatuaren laguntza, auzitegiko medikuaren txostenak egitea edo arrazoi horregatik egiten diren salaketak ikertzea. Horiek denak aztertzeko asmoz, Arartekoak txosten zehatz bat prestatu du, eta haren bukaeran berriazko hainbat neurri proposatu ditu, gardentasunaren bitartez prebentziozko eraginkortasuna gehitzeko.

7. Gizartean larriki baztertuta edo pobrezian dauden pertsonak

Ezer baino lehen, nabarmendu nahi dut gure erkidegoko pertsona askok zailtasunak izaten dituztela beren eskubideak baliatzeko eta beren oinarritzko beharrei –esaterako, etxebizitzari eta jatekoari– aurre egiteko. Zailtasun horiek krisialdi ekonomikoa iritsi baino lehen ere bazeuden. Eta oraingo krisia larriki eragiten ari zaie sektorerik ahulenei; horrexegatik dira hain garrantzitsuak gizartean egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko programek.

Horren haritik, beharrezkoa iruditzen zaigu gai hauek azpimarratzea:

1. Gizarte zerbitzuen euskal sistemak eta diru-sarrerak bermatzeko sistemak zenbait tresna behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko prestazioak eta zerbitzuak homogeneoki garatu ahal izateko. Tresna horietako batzuk onartzeke daude oraindik.
2. Enplegu politiken transferentzia aukera ona da prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen enplegua aktibatzeke, baina alde batera utzi gabe pertsona bakoitzaren egoera eta inguruabar pertsonalak, hau da, gizarteratzeko ibilbide pertsonalak eta talde guztien –emakumeen, familien, gutxiengo etnikoetako kideen, eta abarren– inguruabarrak.
3. Bazterketaren arrazoiei buruzko azterketa eta eztabaida publikoa falta da, Europar Batasuneko milioika pertsonari eragiten dien errealitatea delako, 2010ean, txirotasunaren eta gizarte bazterketaren aurkako europar urtean agerian geratu denez. Iruzuraren kontrako borrokarako protokoloiei buruzko informazioak eta herri-administrazioek hura saihesteko egiten dituzten jarduerak eragotzi egin behar dute bizirauteko arazoak dituzten eta eskubideen –esaterako, bizimodu duina izateko eskubidearen– jabe diren herritarrak estigmatizatzea.
4. Etxerik gabeko pertsonen era askotako baliabideak (gizarte eta osasun baliabideak, baliabide soziosanitarioak) eta ibilbide malguak behar dituzte, gizarteratzeko prozesuak linealak ez direlako.
5. Prestazio ekonomikoak kudeatzen dituzten administrazioek prestazio horien tramitazioan xedatutako arauak eta administrazio-prozedura arautzen duen legerian xedatutako berme eta eskubideak bete behar dituzte, entzuteko eta berdintasunerako printzipioa betetzeko arreta berezia jarritz. Prestazioak



eteteo zioak arrazoitu egin behar dira, eta ez da egokia zigor prozeduraren ordeztete prozedura erabiltzea, helburu ezberdinak baitituzte.

6. Krisialdi egoeran funtsezkoak dira herri-administrazioek abiarazitako neurriak, bai bazterketa larriko prozesuak saihesteko, bai pertsonen enplegua lortzeko aukerak eta enpleguaren hazkundea hobetzeko.

8. Ijitoak eta beste gutxiengo kultural batzuk

Jarraian arlo honetako hainbat gai nabarmenduko ditugu, eta horien bilakaera bereziki aztertu beharko da 2011. urtean, oso interesgarriak direlako:

1. Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartzeko organo bat dauka, baita jardura-plan bat ere, hain zuzen, Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Gizarte Partaidetzarako II. Plana 2008-2011. Tresna horiek gizartearen parte-hartzea ahalbidetzen dute eta gure erkidegoan ijitoen egoera hobetzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraztea aurreikusten dute. Plana betetzeak lehentasuna izan behar du.
2. Politika publikoek bete egin behar dituzte gutxiengo kulturalak babesteko onartutako konpromisoak.
3. Etxebizitza lortzeko zailtasunak mugatu egiten du ijitoek beren eskubideak gauzatzeko.
4. Ijitoek beren eskubideak berdintasunez gauzatzeko dituzten zailtasunak jendeari jakinarazteko eta jendea sentsibilizatzeko neurrien falta sumatzen da.
5. Ijitoen egonlekuak saihesteko jardura publikoek aintzat hartu behar dituzte pertsonen egoera eta beharrak, ez bakarrik herritarren segurtasuna.
6. Premiazkoa da gizarteari ohartaraztea norbanakoa dela berak egiten dituen jardueren arduraduna, ez ijito herria eta are gutxiago ume ijitoak. Gizartearen gaitzespenak, laneko diskriminazioak, eskola eta bizitoki bereizketak ijitoen gizarte-bazterkeria eragiten dute.
7. Gizarte- eta hirigintza-narriadura jasaten duten auzoetan, populazioaren beharrei osorik eta herri-administrazioen arteko koordinazioarekin erantzuten dieten jardura publikoak beharrezkoak eta onak dira populazio osoarentzat.

9. Etorrinak

Etorrinak dira beraien eskubideak errazago urra daitezkeen taldeetako bat:

1. 2010. urtean euskal immigrazio politikari eragiten dioten erabaki garrantzitsuak hartu dira, esate baterako, HELDU zerbitzua kendu da eta ez da immigrazioari buruzko euskal plan berririk onartu. Horrez gain, aurreko urteetan baino kexa gehiago jaso dira prestazioak ukatzearen eta etetearen gainean: adibidez, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte



- larrialdietarako laguntzak, eta ez da ahaztu behar laguntza horiek arriskuan edo gizartean baztertuta daudenei ematen zaizkiela.
2. Aurten, aurreko urteetan bezala, Arartekoa kezkatzen duten kexa ugari jaso dira herrizaingoaren arloan. Kexa horiek **poliziaren jarduerari** buruzkoak dira, atzerritarrekin dute zerikusia, eta jasotako tratua beraien jatorriarekin lotzen dute.
 3. Datu zorrotzetan oinarrituta ez dagoen **diskurtso sozial** bat zabaldu da, zeina aurreiritzi eta estereotipo xenofoboek elikatzen duten; diskurtso horretan, immigrazioa delinkuentziarekin lotzen da eta zerbitzu publikoak eta prestazioak gehiegikeriaz eta iruzur gisa erabiltzen dituztela esan ohi da. Diskurtso hori oso kezagarria da, eragina izan baitezake erakundeek eta herri-administrazioek immigrazioari eta integrazioari buruz ezartzen dituzten politika publikoetan, baita bizikidetasunean eta gizarte-kohesioan ere.
 4. Atzerritarrek aurrera egitea eta integrazioa zailtzen duen elementu bat **diskriminazioaren kontra borrokatzeko** baliabide eraginkorrik ez izatea da. Arraza edo etnia jatorriagatik ez diskriminatzeko Kontseiluak diskriminazioaren biktimei laguntzeko zerbitzu-sare bat sustatu. Hori aurrerapauso bat da.
 5. EAEn oraindik ez da onetsi **Immigrazioari buruzko III. Euskal Plana**.
 6. EAEn administrazio egoera irregularrean dauden etorkinak bizi dira. Politika publikoek arreta berbera eskaini behar diete, eskubide bat delako eta, gainera, integrazio politiketan aplikatzen den printzipio bat delako. Horregatik, laneko gaitasunari edo beharrezkoa den gizarte-babesari dagokionez, Lanbide eta antzeko zerbitzu batzuk erabili ahal izateko baldintzak eta bermeak ezarri beharko liriateke. Pertsona horiek **duintasunez** bizi behar dute gure artean.
 7. Politika publikoek atzerritarren behar eta egoeretara egokitu behar dute eta, besteak beste, honako alderdi hauek hartu behar dituzte kontuan: adina, generoa eta pertsona horien zaurgarritasun egoera, adibidez, adingabeen edo gazteen kasuan, genero indarkeriaren biktimak direnean, jatorrizko herrialdean jazarpena pairatu denean edo gizakien salerosketaren biktima direnean, e.a. Zigorrezko neurriak ezartzen badira, neurri horiek modu egokian haztatu behar dira giza eskubideak babestu eta errespetatzeko betebeharrarekin eta nazioarteko konpromisoekin.



10. Joera homosexualeko pertsonen, gay eta lesbianen, identitate transexualekoen eta transgeneroen oraindik ere diskriminazioa jasaten dute, baita estigmatizazioa eta gizarte-bazterketa ere, homofobiako eta hererosexismo baztertzailazko jarrerak direla eta, lege mailan aurrerapen garrantzitsuak egin badira ere

Honatx 2010ean arlo honetan egin den lanaren alderdi aipagarrienak:

A. LGTBen eskubideak bultzatzeko lana

• Transexualei eragiten dieten gaiak:

- Arazoak daude jasotzen duten arretari dagokionez;
- Ez daude ados sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko legeak ezarri dituen lege betekizunekin;
- Transexualei arreta osoa emateko legeria edo araudia behar da: legeria edo araudi horrek, osasun arazotik eta legezko identitatearen ikuspegi zorrotzetik harago, haien bizitzako beste esparru eta alderdi batzuk ere era zabalagoan hartu beharko ditu kontuan;
- Komenigarria da bereizkeriaren kontrako legeria izatea: legeria horrek berariazko tresnak eduki beharko ditu transexual eta transgeneroen kontrako bereizkeria desagerrarazteko.

• Gay eta lesbianen eskubideei eragiten dieten gaiak:

- - Herri-administrazioei eskatu behar zaie erabat egokitu daitezela, baita alderdi formaletan ere, bikote homosexualek seme-alabekin familiak osatzeko eskubidea dutela onartzen duen lege-errealitatera.
- - Garrantzitsua da, hezkuntza eta sentsibilizazio esparruetan, adingabeei beren joera sexuala libreki eta erabat garatzeko babesa emango dien estrategia lantzea.

• Familia homoparentalek eta sexu bereko bikote eta ezkontideek dauzkaten administrazio oztopoei buruzko gomendioa.

Administrazioaren jarduera batzuk bikote eta ezkontide homosexualen eta familia homoparentalen errealitate juridiko eta sozial berrira formalki egokitzeko eskaera horri erantzuteko, hain zuzen ere, Arartekoaren 4/2010 gomendio orokorra egin dugu, abenduaren 23koa, familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzeari buruz.



B. Kexarik aipagarrienak

LGBTen eskubideei dagokienez, erakundean jaso ditugun kexarik aipagarrienak honako hauek izan dira: alde batetik, **transexualek jasotzen dituzten osasun prestazioekin** lotutako gaiak; eta bestetik, **Erregistro Zibilean sexu bereko ezkontideek inskribatzeko dituzten arazoak** salatzen dituztenak, **baita ere bi emakumek osatutako bikote ezkonduetan, lagundutako ugalketa tekniken bitartez izandako seme eta alaben seme-alabatasuna Erregistro Zibilean ama biologikoaren emaztearen alde ezartzeko dauden arazoak.**

11. Adinekoak

Pertsona adintsuen taldea gero eta handiagoa da, bizi-itzaropena areagotu egin delako. Horrez gain, oso talde heterogeneoa da, izan ere, bere baitan hartzen ditu bai autonomia pertsonala duten eta gizartean aktiboki esku hartzeko gai diren pertsonak, bai autonomia pertsonala oso mugatuta duten mendeko pertsonak.

Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da modu aktiboan eta osasuntsuan zahartzearen ideia, bizimodu aktiboa eta autonomoa sustatzen da, eta horren ondorioz, pertsona horiek bizi-kalitate hobea izateaz gain, gizarte-zerbitzuen iraunkortasunerako ere mesedegarria da.

Bestalde, kezkarriak dira adinekoek jasaten dituzten tratu txarrak, batez ere psikologikoak. Errealitate hori ez da guztiz azaleratu eta, horregatik, tratu txar horiek prebenitzeko eta antzemateko neurriak hartu behar dira. Komenigarria izango litzateke Eusko Jaurlaritzak adinekoen tratu txarren kontra borrokatzeko plan bat prestatzea.

Halaber, aipatzekoa da 8/2010 Errege Dekretuan defizita murrizteko aurreikusi diren aparteko neurrien artean, aldatu egin dela mendekotasunagatik prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen den unea; izan ere, prestazioak onartzen dituen ebazpena ematen den unetik aurrera sortuko dira, edo, berariazko ebazpenik ematen ez baldin bada, eskaera egiten denetik sei hilabetera.

Eskaera egiten zen unetik bertatik eskubidea sortzen zela adierazten zuen xedapena ezeztatzeko neurri hori dagoeneko foru dekretu banatan jaso dute Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek.

Aldi bereko arreta sanitario eta soziala behar da, koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraitutasun printzipiora egokitua. Horrek garrantzi handia du adineko pertsonen dagokienez, eta bereziki mendekotasuna duten adinekoen dagokienez. Horregatik, oso interesgarria da EAEko arreta soziosanitarioko zuzentzarauak lantzeko agiri markoa.



Egoitzetako plazen prezio publikoarekiko desadostasuna agertzen zuten kexa batzuk direla eta, berriro ere agerian jarri da alde handiak daudela hiru foru aldundiek adinekoentzako egoitza-plazetarako finkatzen dituzten prezio publikoen zenbatekoetan. Prezio publiko horiek homogeneizatzeko joera izan beharko lukete, edo, gutxienez, orain dauden aldeak gutxitu.

Titulartasun publikokoak izan arren kudeaketa pribatukoak diren adinekoentzako egoitza zerbitzuetan ageri diren lan-gatazkek –adibidez, Aldakonea edo Ariznabarra egoitzetakoek– argi adierazten dute bateragarri egin behar direla langileek greba egiteko duten eskubidea eta egoitzetako adinekoek osasunerako eta arreta zerbitzua jasotzeko duten beharra (horiek baitira ahulenak).

Bukatzeko, etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeari buruz, paradoxikoa da, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko eskumen-banaketa ikusirik, zerbitzua I. graduko mendekotasuna dutenei ukatzea eta, hala ere, pertsona autonomoek zerbitzua jasotzea, nahiz eta horientzako arreta udalaren eskumenekoa izan.

12. Talde terroristen biktimak

laz, 4/2008 legea Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoaren xedapenek jarraitu dute bere ibilbidea beren garapenari eta aplikazioari dagokionez. Zentzu honetan, egin diren aurrepausoak nabarmendu ditugu txostenean bai eta positiboki baloratu ere, adibidez 290/2010 Dekretua onartu izana. Dekretu horrek terrorismoaren biktimen arreta osoa emateko sistema garatzen du eta 4/2008 Legean xedatutako eskubideetako batzuk gauzatzea ahalbidetuko du.

Uste dugu, bestetik, 2009ko gure txosten berezian esaten genuen bezala, ahalegin berezia egin beharko litzatekeela ETA ez beste talde terroristek (GAL, BVE etabarrek) sortutako biktimen eskubideak behar bezala babestu eta benetan eta modu eraginkorrean betearazteari dagokionean, nabarmenak baitira gaititu beharreko gabeziak.

Legezko agindu bat betez, "Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak" txostena onartu da. Nahiz eta txosten hori zorrozki terrorismoaren biktimen gainekoa ez izan, bertan giza eskubideen urraketa pairatu duten beste biktima batzuen errealitatea jorratzen da. Garaia dela uste dugu biktima hauei eta justiziaren arabera dagozkien eskubideei tinkotasunez eta ausardiarekin onespenu ematea.

Ezin dugu terrorismoaren biktimei buruzko atal honi amaiera eman ETA behin betiko desagertu dadilako desioa azaldu gabe hari desagertzea exijituz, ondorioz biolentzia terroristak eragin duen milaka euskal herritarren aurkako heriotza



mehatxua, estortsioa, bortxa eta sufrimendu zentzugabe eta bidegabea ezabatuz. Jean-Serge Nérin polizia frantsesaren eraiketa izan dadila azkena. Horixe nahiko nuke. Baita ere, era berean, gogo biziz, hurrengo urtean zuen aurrean agerraldia egingo dudanean Arartekoaren lanaren berri emanez biolentzia terrorista iraganeko kontua izan dadila eta kontsentsu politiko eta sozial ahalik handienarekin jarraitu dadila lanean lehen aipatu 4/2008 legeak xedatutakoa oso-osorik bete dadin.

* * * *

Bukatzer a noa. Interesgarriak iruditzen zaizkigun beste gai asko ere pozik landuko nituen zuen aurrean, baina horiek txostenean aurkituko dituzue.

Adierazi dizuedanez, txosten honek beste irakurketa batzuk egiteko aukera ematen du, eta aipaturikoak bezain garrantzitsuak diren beste gai batzuk nabarmendu zitezkeen. Hemen haiek ez azaltzeak ez du esan nahi, ez horixe, aintzat hartzen ez ditugunik, baizik eta azalpen honek iraupen mugatua duela eta denbora-muga hori errespetatu behar dudala.

Benetan eskertzen dut Ararteko erakundeko langileek egiten duten lana. Haien laguntzarik gabe, ezinezkoa izango litzateke hemen islatu diren jarduera guztiak egitea.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen arretagatik, eta legebiltzar ordezkari gisa laguntza eskatu nahi dizuet berriz, estatutuak eta legeak eman dizkidaten zereginak bete ahal izateko.

Eskerrik asko.